eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA | VICERRECTORADO DE INVESTIGACION

| | |
|---|---|
| **PIFG18-11 IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEAREN ERABAKIA, 2018ko UZTAILAREN 10ekoa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA ARGITARATZEA HELBURU DUENA.** | **PIFG18-11 RESOLUCIÓN DE 10 DE JULIO DE 2018 DEL VICERRECTOR DE INVESTIGACION POR LA QUE SE PUBLICA CONVOCATORIA DE CONTRATACION PARA FORMACION DE PERSONAL INVESTIGADOR EN LA UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO.** |
| **OINARRIAK**<br>Prestakuntzan dauden ikertzaileak kontratatzeko deialdi hau 2018ko martxoaren 15an Gobernu Kontseiluan onartutako UPV/EHUn ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdi orokorraren oinarriei jarraituz egin da. | **BASES**<br>La presente convocatoria de contratación de personal investigador en formación se realiza de acuerdo con las bases de la Convocatoria general de contratación para formación de personal investigador en la UPV/EHU, aprobada en Consejo de Gobierno de 15 de marzo de 2018. |
| **DEIALDIAREN EZAUGARRI ESPEZIFIKOAK** | **CARACTERÍSTICAS ESPECIFICAS DE LA CONVOCATORIA** |
| **DEIALDAREN HELBURUA** | **OBJETO DE LA CONVOCATORIA** |
| Deialdi honen helburua Unibertsitateko langile tituludunen prestakuntza (UPV/EHUko doktorego programetan) eta doktorego tesiak sustatzea da, doktorego aurreko kontratuen bidez eta jarraian adierazten den ezagutza zientifikoaren arloan, Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera (aurrerantzean ZTBL). | La finalidad de esta convocatoria es promover la formación del personal titulado universitario en los programas de doctorado de la UPV/EHU y la realización de Tesis Doctorales, mediante la formalización del contrato predoctoral, en el área del conocimiento científico indicada más abajo, de acuerdo con lo establecido en el artículo 21 de la Ley 14/2011, de 1 de junio, de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación (en adelante LCTI). |
| Egin beharreko doktorego tesia arlo zientifiko honetan sartzen da: | La tesis doctoral a realizar se enmarca en el siguiente entorno científico: |
| **"Desigualdades sociales en salud"** | |
| **HAUTAGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK** | **REQUISITOS DE LOS/AS CANDIDATOS/AS** |
| • Soziologia eta Osasun Zientzietan Titulazioa (Titulazioa 2015ean edo beranduago lortuta)<br>• Osasun Publikoan Masterra | • Titulación en Sociología o Ciencias de la Salud ( 2015 o posterior).<br>• Máster en Salud Pública |

| KONTRATUEN FINANTZIAZIOA | FINANCIACIÓN DE LOS CONTRATOS |
|---|---|
| Doktorego aurreko kontratua ikerketa talde/proiektu honen baliabideak erabiliz finantzatuko da: | El contrato predoctoral se financia con los recursos propios del Grupo/Proyecto de investigación denominado: |
| **“Envejecimiento demográfico y desigualdades sociales en salud en la CAPV”** | |
| UPV/EHUn ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdi orokorreko 4. oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz, kontratuak urtebete iraungo du eta, programan egon bitartean, urtebeteko 3 alditan luzatu ahal izango da, betiere, doktorego programako Batzorde Akademikoak edo, hala badagokio, Doktorego Eskolak aldeko urteko txostena egiten badu.<br><br>Lehen urteari dagokion doktorego aurreko kontratuaren zenbatekoa hori finantzatzen duen egitura organikoaren (edo egitura organikoen) aurrekontuan sartuko da, eta zenbateko horrek kontratuarekin zerikusia duten gastu guztien ordainketa bermatu beharko du. | De acuerdo con lo establecido en la base 4 de la Convocatoria general de contratación para formación de personal investigador en la UPV/EHU, la duración del contrato será de un año, prorrogable por 3 períodos anuales previo informe anual favorable de la comisión académica del programa de doctorado, o en su caso de la Escuela de doctorado, durante el tiempo que dure su permanencia en el programa.<br><br>El importe del contrato predoctoral correspondiente a la primera anualidad se reservará en el presupuesto de la Orgánica u Orgánicas que lo financian y asegura el abono de todas los gastos relacionados con él. |
| Ondorengo urteetarako, eta UPV/EHUn ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdi orokorraren 2. atalеko 4. oinarrian zehaztutako luzapenerako izapideez gain, laguntzen talde sustatzaileak hurrengo urtebeteari dagokion aldiko zenbatekoari aurre egiteko behar adinako finantziazioa badagoela jakinarazi beharko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.<br><br>Hala egin ezean edo behar besteko finantziaziorik izan ezean, doktorego aurreko kontratua ez da luzatuko. | Para las siguientes anualidades, y adicionalmente a los trámites de prórroga establecidos en la base 4 apartado 2 de la Convocatoria general de contratación de personal investigador en formación en la UPV/EHU, el grupo promotor de las ayudas deberá comunicar al Vicerrectorado de Investigación, la existencia de financiación suficiente para cubrir el importe de siguiente período anual.<br><br>En caso de no aportarse o de no existir ésta, el contrato predoctotral no será prorrogado. |
| **ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA** | **PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES** |
| Eskaerak aurkezteko epea 2018ko abuztuaren 1ean amaituko da. | El plazo de presentación de solicitudes finaliza el día: 1 de agosto de 2018 |
| **ESKAERAK FORMALIZATZEA** | **FORMALIZACIÓN DE LAS SOLICITUDES** |
| Eskaerak egiteko inprimaki ereduak Ikerketaren arloko errektoreordeari zuzendu behar zaizkio, eta Arabako, Bizkaiko edo Gipuzkoako Campuseko erregistroetako batean aurkeztu behar dira, edo UPV/EHUren 2002ko irailaren 26ko Erabakian aipatzen diren bulegoetako batean (2002ko urriaren 24ko EHAA); era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako prozeduren bitartez ere aurkeztu ahal | Las solicitudes se formalizarán en el modelo de impreso, dirigidas al Vicerrector de Investigación, deberán presentarse en cualquiera de los Registros Generales de los Campus de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa, o en cualquiera de las Oficinas enumeradas en la Resolución de la UPV/EHU de 26 de septiembre de 2002, (BOPV de 24 de octubre de 2002) o, en su caso, conforme al artículo 38.4 de la Ley 30/92, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento |

| | |
|---|---|
| izango dira eskaerak. | Administrativo Común. |
| Paperean dokumentu hauen kopia bana aurkeztu beharko da:<br><br>❑ *Eskaera inprimaki osoa.*<br><br>❑ Norberaren ikasketa ziurtagiria, lortutako kalifikazio guztiak eta horien datak barne hartzen dituena. Ziurtagirian agertu behar du eginiko irakasgai eta kreditu guztiek osatzen dutela lizentziatura, edo horren baliokidea, eta eskatzaileak ahalmena duela hirugarren zikloko ikasketekin hasteko.<br><br>Ikasketak zati batean edo osorik atzerrian egin badira, ikasketa ziurtagirian edo horrekin batera aurkezten den agirian dagozkion ebaluazio sistemako gehienezko eta gutxieneko kalifikazioak agertuko dira. Halaber, gainditzeko gutxieneko kalifikazioa zein den jakinaraziko da.<br><br>Ikasketa ziurtagiria atzerriko hizkuntzaren batean eman bada, horren itzulpena ere aurkeztu beharko da; itzulpena zinpekoa izango da edo interesdunak hasiko duen doktorego programa edo ikerketa masterraren zuzendariak ziurtatuta egongo da.<br><br>❑ *NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia.*<br><br>❑ *Lan bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzak emana.*<br><br>❑ *Atzerrian egindako unibertsitate ikasketen batez beteko nota baliokidearen ziurtagiria, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalak (ANECA) emana. <u>Eskatzaileak ANECAren zerbitzuen atarian eskuratu beharko du ziurtagiri hori (http://notasmedias.aneca.es)</u>.* | Se presentarán en papel una copia de los siguientes documentos:<br><br>❑ *Impreso de solicitud completa.*<br><br>❑ Certificación académica personal, en la que consten todas las calificaciones obtenidas y la fecha de las mismas. El certificado debe expresar que el conjunto de asignaturas y créditos cursados constituyen el total de la licenciatura o su equivalente. y que el solicitante queda facultado para acceder a los estudios de Tercer Ciclo.<br><br>En el caso de los estudios realizados parcial o totalmente en el extranjero, el certificado del expediente académico u otro acompañando al mismo, recogerá cuáles son las calificaciones máxima y mínima dentro del sistema de evaluación correspondiente; del mismo modo, se hará constar cuál es la calificación mínima necesaria para aprobar.<br><br>En los casos en los que la certificación académica esté extendida en un idioma extranjero habrán de acompañarla de la correspondiente traducción jurada o traducción certificada por el Director del Máster oficial de investigación o programa de doctorado en el que vaya a incorporarse el candidato.<br><br>❑ *Copia del DNI, NIE o Pasaporte.*<br><br>❑ *Certificado de Vida Laboral expedido por la Seguridad Social.*<br><br>❑ *Certificado de nota media equivalente de estudios universitarios realizados en el extranjero emitido por la Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación (ANECA). <u>El solicitante deberá obtenerlo a través del portal de servicios de la ANECA (http://notasmedias.aneca.es)</u>.* |
| **BALORAZIO IRIZPIDEAK** | **CRITERIOS DE VALORACION** |
| Beka jasotzeko hautatua izateko, gutxienez 60 puntu lortu beharko dira, Hautapen Batzordeak zehaztutako moduan. | Se requerirá una puntuación mínima superior a los 60 puntos, a establecer por la Comisión de Selección, para ser seleccionado como candidato/a a la ayuda. |

| | |
|---|---|
| Espainiako unibertsitate sistematik kanpo lortutako espedienteen kasuan, aipatutako 1. irizpidean Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalak (ANECA) atzerrian egindako unibertsitate ikasketen batez besteko nota baliokideak kalkulatzeko zerbitzuaren bidez esleitutako balioa aplikatuko da, baldin eta baliokidetza hori beharrezkoa bada lehiaketa prozesu batean aurkeztu ahal izateko.<br><br>ANECAk emandako ziurtagiria deialdiaren 9. oinarrian adierazitako gainerako dokumentazioari erantsi beharko zaio.<br><br>Ziurtagiri hori aurkeztu ezean, 10 puntu esleituko zaizkio. | En el caso de los expedientes obtenidos en Universidad ajenas al Sistema Universitario español, en el criterio 1 anterior, se aplicará el valor que asigne la Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación (ANECA) a través del servicio de cálculo de notas medias equivalentes de estudios universitarios realizados en el extranjero, para aquellos supuestos en que la equivalencia sea necesaria a efectos de poder presentarse a un proceso de concurrencia competitiva.<br><br>La acreditación que emite la ANECA deberá adjuntarse junto al resto de la documentación indicada en la base 9 de la convocatoria.<br><br>En el caso de que no se aporte esa certificación, la puntuación que se asignara será 10 puntos. |
| **HAUTAKETA BATZORDEA** | **COMISION DE SELECCIÓN** |
| Hautaketa Batzordea honela osatuko da:<br><br>Presidentea: Unai Martín Roncero Jn.<br>Idazkaria: Amaia Bacigalupe de la Hera And.<br>Batzordekideak: Naiara Ortega Rodríguez And.<br>Andrés Davila Legeren Jn.<br>Maite Morteruel Arizcuren And. | La Comisión de Selección estará formada por:<br><br>Presidente: D. Unai Martín Roncero<br>Secretaria: Dña. Amaia Bacigalupe de la Hera<br>Vocales: Dña. Yolanda González Rábago<br>D. Andrés Davila Legeren<br>Dña. Maite Morteruel Arizcuren |
| Batzorde horrek eskaerak baloratuko ditu. Horretarako, beharrezkotzat jotzen badu, erabaki dezake hautagaiei elkarrizketa egitea, haiek beren curriculuma defenda dezaten. Onartutako eskariak argitaratzen direnetik bost eguneko epean hautatuen zerrenda argitaratuko da, puntuazio handienetik txikienera sailkatuta. | Esta Comisión valorará las solicitudes, para ello optativamente podrá, si lo considera necesario, realizar una entrevista a los candidatos para defender su curriculum. En el plazo de cinco días naturales desde la publicación de las admitidas confeccionará la lista ordenada de mayor a menor puntuación. |
| **ERABAKIA** | **RESOLUCIÓN** |
| Hautaketa Batzordearen proposamena baloratu eta gehienez 10 egun igaro ondoren, Ikerketaren arloko errektoreordeak eskatutako laguntza ematea erabaki duen ala ez jakinaraziko dio interesdun bakoitzari. | En un plazo máximo de diez días hábiles, al recibir la propuesta formulada por la Comisión de Selección, el Vicerrector de Investigación mediante resolución individualizada comunicará a los interesados la aprobación o denegación de las ayudas solicitadas. |

José Luis Martín González
Ikerketaren arloko errektoreordea / Vicerrector de Investigación

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE INVESTIGACIÓN
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA